



20. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Alarma estatuko 20. eguna. 2020ko apirilaren 4a, larunbata.

Hilaren 3ko, ostiraleko, Kudeaketa / Jarduerak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Egunak aurrera doazen heinean, geroz eta argiagoa da *Atano* pilotalekua ez dela aurrerago beste baliabide batzuetara bidali aurretik zapaldu behar den atea bakarrik. *Atanok* ez ditu bigarren baliabide hauek betetzen dituzten baldintza minimoak betetzen, oheak izan ordez esku-oheak baititu eta objektu pertsonalak gordetzeko armairurik ezta ez baitu (honek ekar ditzakeen, eta jada ekar dituen, liskar eta iskanbilekin). Egoera hau argazkian argi ikus daiteke, baita Osasungintzatik gomendatu diren distantziak nola zaintzen diren ere.



Egoera hau ulertzea ezinezkoa egiten zaigu harrera-leku izan daitezkeen beste baliabide batzuk libre egonik. Besteak beste, hementxe dugun Uliako udal aterpetxea eta azken egunetan aipatu ditugun beste batzuk.

Oinarrizko beharrei dagokienez, eraikin hutsetan bizi diren pertsonen Harrera Sareak banatzen dituen elikagaiak jasotzen denbora luzea daramate eta garbiketa eta higiene beharrak dituzte. Alarma Egoeraren aurretik, Arratsek eta Gurutze Gorriak banatzen zizkieten bale batzuen bidez dutxa publiko batzuetara joateko aukera zuten,

baina hauek ixtean, pertsona hauek hiru aste daramatzate hain oinarrizkoa den zerbitzu bat jaso gabe. Harrera Saretik, behin-behinekoa den dutxa txiki bat eskaintzeko aukera izan dugu, baina behar hau argi adierazi diegu Gizarte Zerbitzuei aurretik gelditzen zaizkigun konfinamendu asteak direla eta.

Arropa garbitzeko aukerari dagokionez ere antzeko dabilta; garbigailu bat lortzeko ideiarekin gabiltza, eta beste aukerarik aurkitzen ez badugu, Sareak jaso dituen diru-sarrerekin bat erosiko dugu.

Ostegun eta ostiraleko elikagaiak 43 pertsona eta 14 familiari banatu zitzaizkien.

KOMUNIKAZIOA. *Naiz irratian* elkarrizketa <https://twitter.com/NAIZirratia/status/1246083366102937602?s=08> **Hirutxuloko Hitzan erreportajea** <https://irutxulo.hitza.eus/generoak/iritziak/berrogeialdiak-etorkizunerako-bidaia-oparitu-digu/>

Komunikabideetara eta sareetara 19.Buletina zabaldu da.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Ekarpen ekonomikoari dagokionez, **142 pertsonen** egindako diru-sarrerek **9.278€ko** kopurura iristeko aukera eman digute. Eguneroko elikagai ekarpenetan, **Gandarias** eta **Pandora** tabernek jarraitzen dute.



20. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

9. PILULA

Etixerik Gabeko Euskal Estrategia

Bertan dago! Gure proposamenak jarraitu gabe ere (primeran legoken arren), instituzioek dituzten planak martxan jartzeak balioko luke. Hona hemen etxegabekoentzako diseinatutako Euskal estrategia: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/documentacion/2018/acuerdo-interinstitucional-para-el-desarrollo-de-la-estrategia-vasca-para-personas-sin-hogar/> 2018an izan zen onartua, eta egoeraren analisi sakon bat egiten du Europa mailan izandako esperientzia desberdinen proposamenak batuz. Bertako ekintza asko oso baliagarriak izango lirarteke, eta besteak beste honako adierazpenak aurki daitezke: *“Las personas usuarias deben ser valoradas y consultadas, y deben ser atendidas en un espacio alternativo a los grandes equipamientos de tipo institucional, que se adapte a sus necesidades y preferencias, y en el que puedan recibir los apoyos necesarios. Aboga por soluciones residenciales que se caracterizan por su pequeño tamaño, su carácter disperso y por la prestación de servicios individualizados de apoyo de intensidad variable.”*

Batetik, argi jasotzen ditu arazoaren osotasunean oinarritutako erantzunak (*“la necesidad de que – al menos como horizonte– las estrategias de abordaje del fenómeno de las personas sin hogar se orienten a la erradicación del problema y no a su mera gestión.”*). Eta bestetik, gainera, erantzunen errealismoa eta praktikotasuna adierazten dira: *“el objetivo de erradicar el sinhogarismo se considera un objetivo realista, alcanzable a partir de la combinación de políticas de prevención y de intervención, orientadas al acceso a la vivienda, en la que los recursos temporales y de emergencia –de suficiente calidad– se plantean como puerta de acceso a un alojamiento permanente en un plazo razonable de tiempo.”* Emakumeen egoerari dagokionez ere, arreta pertsonalizatua goraiatzeko du (*“una verdadera individualización de las intervenciones, a partir de la idea de la atención centrada en la persona, resulta un elemento clave desde el punto de vista del género.”*).

Zoritxarrez, strategiaren onarpenera iristen garen momentuak, arazoak aurkitzen ditugu begibistan: hasteko, datak ez dira hasieratik errespetatu strategiaren baldintza **boluntarioa eta orientatzailea** dela medio. Strategiaren praktikaldia lau urteetarako zegoen diseinatua (2018 – 2021), epe hau nahiko zabala zela ulertzen baitzen diseinatutako ekintzak aurrera eramateko. Gainera, bi ebaluaketa informe egiteko asmoa omen zegoen; lehenengoa 2018ko amaieran eta bigarrena 2020ko amaieran. Oraindik lehenengoaren zain gaude, eta ikusi beharko da bigarrenaren momentua iristen denean. Ekintza hauek aurrera eramatean aurkitutako oztopoen arrazoia argia dela uste dugu, **finantzazioa instituzio bakoitzaren aurrekontuen menpe** baitago. Ondorioz, strategiaren helburua mugatua ikusten da etxegabekoen egoera amaitzeko “errealista” omen zen plangintza batean. Hiru urte pasa dira strategiaren datatik, eta egoera aldatu eta larritu egin da dokumentuak aipatutakoak bertan jarraitu arren (*“Una estrategia basada en la perspectiva de derechos y, más concretamente, en el concepto de doble derecho. Una estrategia centrada en las personas y centrada en la vivienda. Una estrategia orientada a las personas con necesidades más complejas, con especial atención a la problemática específica de las mujeres sin hogar.”*).

Etixerik Gabeko Euskal Estrategia martxan jarri.

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Facebook: @HiritarronHarreraSarea

Instagram: @RedAcogidaCiudadana

Dohaintzak: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABAL EZAZU, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.